

## **IRURAKO UDALAK HAUR ETA NERABEEN AISIALDI HEZITZAILEKO LUDOTEKA ETA GAZTELEKUKO EKINTZAK BURUTZEKO COVID-19AREN PREBENTZIO ETA KONTROLERAKO HARTUKO DITUEN NEURRIAK ETA EZARRIKO DUEN PROTOKOLOA**

Dokumentu honek Irurako udalak haur eta nerabeen aisialdi hezitzaileko ekintzak burutzeko covid-19aren prebentzio eta kontrolerako hartuko dituen neurriak eta ezarriko duen protokoloa jasotzen du. Dokumentuaren hartzaileak ekintza horietako hezitzaileak, parte-hartzaileak eta beren legezko tutoreak dira. Jardueraren datuak honako hauek dira:

Lekua: IRURA

Data: Urriaren 13tik ekainaren 2ra

### **1.- COVID-19A DELA-ETA GAZTEEN AISIA HEZITZAILEKO JARDUERAK EGOKITZEKO PLANA**

#### **1.1 Kutsapenaren kontrola eta prebentzioa**

- COVID-19aren sintomatologia hezitzaile, partaide eta beren legezko tutoreen eskura jarri (ikus, I. eranskina).
- Parte-hartzaileek eta beren legezko tutoreek beren gain hartuko dute COVID-19aren aurrean duten egoeraren erantzukizuna; hala, haietakoren batek COVID-19arekin lotutako sintomak baditu edo kutsatutako pertsona batekin kontaktuan egon bada, inolaz ere ez da jarduerara joango.
- Hezitzaileek jardueraren segurtasuna zainduko dute, instalazioetara sartzean osasun-adierazpena eginez eta ezarritako segurtasun-protokolo eta neurri guztiak behar bezala betez.

#### **1.2 Derrigorrezko higiene- eta prebentzio-neurri pertsonalak betetzea**

- Pertsona guztiek (hezitzaileak eta erabiltzaileak) jardueraren lekuan eta leku komunetan (sarrerak, komunak, etab.) ura, xaboia eta eskuak lehertzeko papera beti eskura izatea ziurtatuko da, edo eta Osasun Ministerioak baimendutako eta erregistratutako gel hidroalkoholikoak edo desinfektatzaileak ere, eskuak garbitzeko.
- Nahitaezkoa izango da maskara erabiltzea (6 urtetik beherakoentzat ez da derrigorrezkoa baina, bai komenigarria). Erabiltzaile bakoitzak bere maskara eraman behar du eta hezitzaileak erreserbako maskarak izango ditu, norberarena galdu, hautsi edo antzeko zerbait gertatuz gero ordezkatu ahal izateko.

Arau hauek betetzen ez badira, disziplina-neurrien proposamena egingo da eta erabiltzaileari ekintzatik kanpo dagoela adieraziko zaio.

#### **1.3 Protokoloaren onarpena**

- Parte-hartzeko baldintzak onartzeko agiria, informatzeko betebeharra eta baimen informatuaren agiria sinatzea ezinbestekoa da, online, zerbitzu telematiko bidez edo kultura bulegoan egin beharko da izen ematea egin ondoren. Beharrezkoa den dokumentazioa [www.irura.eus](http://www.irura.eus) web orrialdean edo kultura bulegoan egongo da eskuragarri protokoloarekin batera.

#### **1.4 Aurrez aurreko jarduerak egokitzea eta berrantolatzea**

- Ludoteka eta gazteleku zerbitzuetan, erabiltzaileek eraikinaren kanpoan itxaron beharko dute hezitzaileak barrura sartzeko baimena eman arte. Honela, sarrerako pilaketak ekidingo dira. Sartzerakoan, partaideen bertaratzea erregistratuko da. Irteera garaian ere gurasoek kanpoan itxaron beharko dute.

- Talde bakoitzari dagokion zerbitzuaren aurretik, 15 minutuko tartea hartuko da espazioaren egokitze eta higiene prestaketak gauzatu ahal izateko. Beraz, amaitu ostean eta hurrengo taldearekin hasi bitartean, 15 minutuko tartea errespetatu beharko da; sartu irteneko pilaketak ekiditeko, gela eta bertako materialak behar bezala desinfektatzeko eta gelako aireztapena gauzatzeko.
- Etengabeko kontaktu fisikoa eragiten duten jarduerak saihestu eta segurtasun-tartea bermatzen duten jolasak lehenetsiko dira. Jardueraren ostean erabilitako material guztia desinfektatu egingo da.

### **1.5 Jarduera garatzeko baldintzak**

- Hezitzaileak ezarri diren prebentzio-neurriak gogoratuko ditu, eta gainerako onerako eta segurtasunerako bete daitezela ziurtatuko du (segurtasun-distantzia mantentzea, maskara erabiltzea, eskuak maiz garbitzea, etab.); eta instalazioak nola erabili ere adieraziko du (adibidez, komunak). Baita ere, norberak eraman beharreko materiala zein den (esaterako, ura).
- Garraio pribatua, instalazio pribatuak, etab. erabiltzen badira, agintari eskudunek emandako neurriak beteko dira.

## **2.- COVID-19AK KUTXATZEKO ARRISKUA EDO KUTSATZE POSITIBOA DAGOENEAN JARRAITZEKO PROTOKOLOA**

### **2.1 Parte-hartzaileraren batek COVID-19 kasu susmagarriaren zantzuak baditu egin beharrekoa**

- Identifikazioa, behaketa edo parte-hartzailearen beraren jakinarazpenen bidez egingo da. Zerbitzura sartzean edo zerbitzuan gaudela parte-hartzaile batek COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak baditu parte-hartzailea, espazio bereizi batera eramango da, maskara kirurgikoa jarriko zaio eta partaidearen tutoreari jakinarazi. Partaideari eta bere tutoreari gomendatuko zaie herriko osasun zentrorra deitzea (943 65 23 39). Kasuaren balorazioa, segimendu kliniko eta transmisioari lotutako harremanak aztertzea osasun zentroaren egitekoa da eta ez zerbitzuko hezitzailearena.
- Langilea bada sintomak dituena, teknikariari jakinaraziko dio eta osasun zentrorra deituko du edo erreferentziazko telefonora (osasun zentroa 943 65 23 39 / Aholku Sanitarioa 900 20 30 50) eta haren jarraibideak jarraituko ditu.

### **2.2 COVID-19 kasu bat baieztatu ondoren nola jardun**

- Osasun agintarien gomendioei jarraituko zaie uneoro.
- Hezitzaileei ez dagokie, ez kontaktuen azterketa egitea, ez jarduera bertan behera utzi edo ez baloratzea. Osasun agintariak eskatutako zereginetan lagunduko da eta lana errazten saiatuko dira. Ondoren, eta horien zuzendaritzapean, arrisku orokorraren ebaluazioa egingo da (parte-hartzaileen, begiraleen eta inplikaturako langileen artean sintomarik dagoen ala ez).
- Kutsatutako pertsonaren pribatutasuna eta konfidentziasuna zainduko dira.

### **2.3 Jarduerak bertan behera uzteko erabakia hartzea**

- Osasun-agintaritzaren jarraibideei jarraituz, jarduera bertan behera uzteko eta zerbitzua aldi baterako ixteko agindu ahal izango da.

- Osasun agintaritzak ala eskatuz gero, legezko tutoreei jakinaraziko zaie COVID-19ko kasu baieztatu bat egon dela.

## **I. ERANSKINA**

### **Sintomak identifikatzeko check-zerrenda:**

Azken 5 egunetan izan al du/duzu ondorengo ez ohiko sintomarik?

- Eztula
- Sukarra 37° baino altuagoa
- Aire faltaren sentrazioa edo arnas estutasuna
- Min muskularra edo articularra eta nekea
- Beherakoa edo botaka
- Azaleko erupzioak edo babak
- Usain edo dastamen galera
- Eztarriko miña
- Hotzikarak

Covid-19arekin gertuko harremana/kontaktu itxia:

- Covid-19agatik kutsatu den pertsonaren batekin gertuko kontaktua izan du/dut azken 10 egunetan. (familia, laguna, etab.)

Horietakoren baten erantzuna baiezkoa bada, ezingo duzu ekintzan parte hartu eta ekintzaren

arduradunari jakinaraziko diozu.